

IBAIZABAL



IXIWA

B. Pujana

D. Redondo

Zorionak Bilduma



Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dau.

© Ibaizabal Argitaletxea, 1994

ISBN: 84-7992-562-0

Legezko gordailua: BI-2340-94


Bilduma-diseinua: C.Monzón eta J.A. Tellaetxe

Tailer grafikoak: ZURE S.A.

# MIXINA

*Egilea:* **Bibiñe Pujana**

*Marrazkiak:* **Daniel Redondo**



# MIXINA LOGELAN



rrosa koloreko logelan, lo gozoan dago Mixina.

Halango baten... Driinnn... Driiiiiinnn!, amamaren iratzargailuak jo dau.

Erdilotan ohean jazarri eta nagiak ataraten dauz, gero aharrausi bat egin, oinetakoak ipini eta leihorantz doa. Leihotik goizeko eguzkiaren izpi ederrak sartzen dira.

*“Irailean ere, bai polita dala gure lorategia!”* dino bere kolkorako.



Izan ere oraindino zuhaitzak ez dira hasi euren orriak botaten eta bedarra oinazpikoa bera baino ere leunagoa eta politagoa dago.

Urrutian, esnesaltzailea kamioneta zuritik ateratako esnea banatzen dabil eta On Kosmeren kioskoko mutilak ere, bere bizikletegaz zoli-zoli periodikoak banatzen dihardu.

*“Tira...”* dino Gabonetan oparitu eutsiezan bota urdinak lotzen dauzan birtartean *“Orain logela txukunduko dot.”*

Polito eta patxadaz ohea egiten hasten da. Egia esan, ez jako batere gustatzen, tximurrez betetako maindireen artean lo egitea. Burukoari ere kolpetxo batzuk emoten deutsoz amonak sarritan esandako hau gogoratzuz: *“Lumak ondo astinduta mila bider hobeto egoten da lo!”*

*“Uste dot ba amaitu dodala”* pentsatzen dau, badaezpada ere ondo begiratzuz. *“Ba ez! Bart irakurritako liburutxoa aitak egindako apalera ez dot eroan.”*



—*Orain bai!* —esan eta sukalderantz doa, amak gertatutako gosari gozoa dastatzeko asmotan.

—*Egun on, amama Basilia!* —esaten deutso amamari bere logelara hurre-ratuz—. *Ondo lo egin dozu?*

—*Ederto, Mixina* —erantzun deutso maitekiro amamak.

Sukaldera joan eta bera eta bere neba-arrebentzat katiluak gertatzen dauz. Katiluok esnez bete orduko han dator ama guztiokaz.

—*Egun on guztioi* —esaten deutse mahaian jezarteko keinua egiten deuselarik—. *Ondo lo egin dozue?*

—*Bai, guk oso ondo, eta zuk?* —erantzuten deutso amak ume txikia altzoan hartu eta jezarten dan bitartean.

—*Ba nik ere ederto egin dot ba...* —esan eta frutak eta zerealak hartzen dauz; larregirik ez, tamainan, sarritan entzun daualako lan egiteko ondo elika-tzea behar beharrezkoa dala.

—*E, mutiko, lurrekoa ez da jan behar!* —esaten deutso Mixinak txikienari, lurrera jausitako gailatea jatera doala ikusiz.


“*Gure Mixina honek neuk baino hobeto zaintzen dauz neba-arrebatxoak!*” pentsatzen dau amak.

Eta egia da, ez neba-arrebatxoak bakarrik, baita ama bera ere oso ondo zaintzen dau; ama nekatu ez daiten, gosariko katilu guztiak ere berak garbitzen dauz.

Esan beharrik ez dago Mixina dotoretzua ere badala, horregaitik, presa ba-rik sartzen da bainugelara.

Bertan, ura alperrik galdu barik, haginak garbitu, arraia erdian egin eta ulea





Goizero hortzak  
garbitzen ditut.



Banoa!

orraztu... Aitita Errobertok behin baino gehiagotan atea jo behar izaten deutso.

—*Mogidu, Mixina... zain gagozala!*

—*Bai, aitita* —ikusi barik daki nor dan atean oles egiten dabilena—. *Oraintxe amaituko dot.*

Esan eta egin, gauzak bere lekuan itzi eta aititari izten deutso bainugela.

Egunean zehar beharko dauzan liburuak zorrora sartu eta han joaten da betiko lekura, Arantza eta Pakogaz alkartzera, hirurak batera eskolara joateko.

Pozik eta alai joaten dira, eurak esaten daben bezela, “eskola-gorrira”.


Bidean zehar semaforo batzuk dabez. Baina denpora apur bat galdu arren, semaforoa gorritz suertatu ezkerro, zain gelditzen dira. Eta halan ere beti sasoiz heltzen dira eskolara, kantu-kantari:

*Bagoaz, garaiz eta umore onez,*

*lagun artean egun barriari*

*hasiera polita emonez.*





# MIXINA ETXEAN

*G*aur, zapatua dan ezkerro, Mixina ohetik beranduago jagi da.

Leihora joan eta gortina tartetik lorategira begiratu dauanean, han ikusi dauz txepetx bi, beti lez abeslari.

“Txio, txio, txio” doinuaren laguntzaz, oheko maindireak aldatzen hasi da. Aldatu bakarrik ez, baita garbigailura eroan ere.

—*Ama, zenbat xaboi ipiniko dot?*—itaundu deutso bere amari.

—*Ez, maitea, xaboia neronek ipiniko deusat*—erantzun deutso amak.

“*Tira ba!*” pentsatu dau bere artean “*Presabako bainu ederra hartuko dot; aititak esaten dauan erara, astean behin ez dago eta opari hobeagorik gorputzarentzat.*”

Amama Basilia urtenagaz batera sartu da Mixina bainugelara; ulea garbitu, oinetako eta eskuetako atzazalak ebagi, dutxa eder bat hartu eta erropak batu ondoren, lurra xukatu dau.



—*Hurrengoarentzat prest*—esan eta pentsatutako lanak egiten hasi da: gelea garbitu, neba-arrebak erabilitako jolasak konpondu eta euren lekuan jarri...

Dana egin ondoren aitita-amama eta gurasoengana joan da.

—*Zer, kafetxo bana hartuko dozue, ezta?*—itaundu deutse.

—*Ez, eskerrik asko*—erantzun deusie danek batera.

—*Mixina, zatoz gugaz jolastera*—esan deutso anaia txikiak.



Baina jolasak arin amaitu dira ahizteak telebistea ikustea gurago dauala esan dauanean.

—*Ez maitea* —erantzun deutso Mixinak—, *telebistea ikustea baino, hobe dogu amamaren ipuinak entzutea, ezta, amama?*

Amamak irribarre egin dau. Umeak laster konturatu dira amamaren asmoaz eta inguruan jarri dira.

—*Baina lehenago eztarria “gozatzeko” kafetxo bana hartuko dogu* —esan dau amamak.

—*Bai* —erantzun deutso aititak.

Mixinak zoli-zoli ekarri dauz kikarak eta kafea gozo-gozoa zerbitzatu deutse, aititari gustatzen jakon erara.

—*Tira ba; behin baten, batek badaki honezkero zenbat denpora izango dan... bazan...*

Umeen irudimena tximistak bezela dabil, urruneko basoetan zehar, berba egiten daben abereen artetik, txokolatezko etxeetatik eta... halango baten, ordu bete inguru igaro danean...

—*Eta egia bada, sartu kalabazan eta atara herriko plazan*, esanez amaitu dau ipuina amamak.

—*Zein polita, amama!* —esan deutso txikienak ahozabalik.

—*Bai, benetan* —erantzun deutso erdikoak.

—*Tira ba, onak bazarie, bihar gebiago* —esan eta jertsea egiten jarraitu dau amamak.

—*Zer ordu da?* —itaundu deutso txikienak aitari.



—*Ba, marrazki bizidunen ordua* —esan eta aitak telebista piztu dau.

Danak telebista aurrean jazarri dira; beno, danak ez, Mixinak, telebista baino gurago dau lorategiko lorakaz denporea igarotea.

Azalora bati orri lehorrak kentzen deutsozan bitartean, irudimenagaz hegaz egin eta landareen herrira doa. “Hementxe biziko nintzateke ni ederto!” pentsatzen dau.

—Eskerrik asko, Mixina, lorategiko lanetan laguntzen deustazulako! —esaten deutso amak.

Mixinak ezer esan barik, amari mosu bi emoten detsoz eta amaren ule bitartetik zeruan zehar hegaz doan zikoina multzoa ikusten dau.

—*Laster udazkena helduko da* —pentsatzen dau eta goizean ikusi dauzan txepetx biren antzera txistuka sartu da etxean.



# MIXINA KALEAN

*M*ixinarentzat zapatua beti da polita, baina gaur eguraldi ederragaitik edo, inoiz baino politagoa iruditzen jako.

Arratsaldez, herriko plazan alkartzekotan gelditu zan atzo Pako eta Arantzagaz. Pakok gaur, berandutxoago etorriko zala esan eutsan, bere gurasoakaz eritetxera joan behar ebalako amama ikustera.

Mixinak sasoiz urten dau etxetik. Polito-polito doa, irribarreka, bere barruko poza besteei emon gurean.

Semaforoa gorri badago gelditu egiten da eta argi gorriaren disdiratan, bere irudimeneko izarrak ikusten dauz.

Halango baten, Fuensantaren okindegi ondotik igaroterakoan, ume batzuk, margo pilo bategaz, horman irudiak egiteko asmotan ikusten dauz.


*—Irudiak papelean bai, baina hormetan ez egin gero!* —esaten deutse.

*—Hormetan zergaitik ez?* —erantzuten deutso mutiko potolo batek.

*—Ba, hormak ez diralako irudiak egiteko. Bakoitzak gura dogun lekuan margotzen badogu, gure herria zelan uste dozue geldituko dala?*

Mutiko potokoa pentsakor gelditu da eta gure Mixina aurrera doa, badakialako berak esana ondo ulertu deutsola mutikoak eta ez dauala hormarik margotuko.





—*Kontuz autoakaz!*—esaten deutso, baloiaren bila errepidera urten dauan mutiko bati.

—*Mutilak, goazen parkera, han toki gehiago dago jolasteko...!*—entzuten deutso beste bati eta nasaituz bere bideari jarraitzen deutso.

Bapatean gurasoak emondako aholkuak gogoratu dauz.

“Katu batek ez dau ezezagunakaz jolastu behar.”

“Katu batek itsuei kalea kurutzatzen edo eta beste edozein premiatan beti lagundu behar deutse.”

“Katu batek ezin dau kalean egin etxean egingo ez leukeanik...”

“Katu batek...”

Bapatean, Pako eta Arantza ikusten dauz.

—*Kaixo Pako! Kaixo Arantza! Gaur ere pelotan jolastu behar dozue, ezta?*

—*Zu bai ziburra Mixina, baina zelan asmatu dozu?*—esaten deutso Pakok.



—*Ba, zuri begiratzea besterik ez dago*—erantzuten deutso Arantzak, frakapoltsiko bitartetik agiri jakon pelota berdea seinalatuz.

Eta jolastu eta jolastu, konturatzerako etxera itzultzeko ordua heldu jake.

—*Tira, lagunok*—esaten deutse Mixinak beste bie—. *Honezkero osaba Aingeru etxean dago eta korrika noa, bera ikusteko gogo handia daukat eta. Bihar arte!*

—*Mungiako osabea? Ipuinak idazten dauzana?*—itauntzen deutso Arantzak.


—*Bai, bera*—erantzuten deutso Mixinak—. Gaur ere Zorionak bildumako libururen bat ekarriko deust.



—Tira ba —dino Pakok—, bat baino gebiago badakar... gogoratu zure lagunakaz, e!

—Bai horixe! —esan eta arin doa Mixina etxera ipuinen pozean, eta zelan ez, osaba Aingeru ikustera.





# MIXINA MAHAIAN

*P*rest dagoz danak afari gozoa jateko. Mahai buruan aitita Erroberto eta bere ondoan amama; beste aldean aitaren anaiarik zaharrena, osaba Aingeru, eta honen ondoan ume txikiak; albo batean ama eta amaren aurrez aurre aita eta Mixina.

—*Eskuak garbitu dozuez?* —itauntzen deutse amak umeei eta Mixinari.

—*Bai, garbi-garbi gainera* —erantzuten deutsie danek aho batez.

—*Ea ba, arrain-zopa gozo-gozoa jango dogu* —esanez ama zopea banatzen hasten da. Mixinak lagundu egiten deutso.

Danen platerak bete ondoren, Mixina, kontuz-kontuz, bere lekuan jezartzen da. Kontu handiz dabil jarlekua mogitzerakoan, zarata handirik ez atarateko.

—*Osaba, ura, mesedez* —esaten deutso Mixinak osaba Aingeruri.


Osaba Aingeru etxe honetako jatorduetako portaerea sinestu ezinik dago. Txikienetik hasi eta handieneraino danak dakie koilare-sardeskak zelan erabili. Inork ere ez dau edalontziaz mahaian zaratarik ataraten, inork ere ez!

“Zapia altzoan eta esku ezkerre mahaian.”

Zenbat bider entzun ete dabe esaldi hori, edo beste hau:

“Bakoitzean, jateko adina ogi bakarrik hartu behar da”.

Astiro eta ondo murtxikatuta arraina jan ondoren, menbrilua eta fruitak datoz azkenburutzat eta gaurkoz, afaria amaitu dute.



Amama eta aitari mahaitik jagitzea kosta egiten jake. Gaurko honetan osaba Aingeruk lagundu deutse.

—*Eta orain, umeak* —esaten deutse amak—, *osaba Aingeruk ekarritako opariak hartu eta bizkor lotara.*

—*Eta ezin dogu apur baten gelditu?* —esaten dau txikienak.

—*Bai, osaba Aingerugaz* —jarraitzen dau bigarrenak.

—*Tira ba, ondo da* —esaten dau aitak amari begiratzuz—, *ordu erditxo bat bai, ezta, ama?*

Amak, irribarre batez baietza iragarri ondoren, umeak, pozez, saltoka hasi dira.

Osaba Aingeru, gelako jarleku ondoan itzitako oparien zorroa altzoan hartu eta, zabaltzen hasi da. Mixina eta umeak bere inguruan dagoz, begiak urten beharrean, zorro horretatik zer atarako dauan zain.

Halango baten, margo eta letra politez betetako liburuak agertzen dira.

—*Hau niretzat!* —dino txikienak, kolore biziz betetako liburua hartuz.


—*Ba, beste hau neuretzat* —jarraitzen dau erdikoak, aberedun liburuari helduz.

—*Mixina, eta zuretzat?* —itauntzen dau txikienak, Mixinarena ere berak aukeratu nahirik.

—*Nasai, txikitxo, danontzat dago eta* —ihardesten deutso osaba Aingeruk. Eta Mixinari berea emon eta gero esaten deutso:

—*Mixina, zure lagunakaz ere gogoratu naz* —eta liburu tartean daukan zorroa emoten deutso.





—*Ea, umeak*—esan dau aititak—, *ondo hasitakoari amaiera ona emoteko, aitak eta osaba Aingeruk, txikitan egindako barrabaskeria batzuk kontatuko deutsuedaz.*


—*Primeran!*—esan dabe umeak eta aititaren inguruan jezarri dira. Ikaragarriko barreak egin dabez, behin baten, osaba Aingeruri teilatutik abarketa Jazintoren patiora jausi eta txakurrak jan eutsala entzun dabenean.

Aitak esandako ordu erditxoan igaro eta gero, Mixina aurretik eta beste guztiak ondoren, bainugelara joan dira han haginak eta aurpegia garbitzera.

Gero, bakoitza bere logelara joan eta pijamea jantzi dabe. Txikienei Mixinak lagundu deutse. Ohera sartu diranean ere, Mixinak, banan banan, danei mantaz lepoa estali deutse. Gero, bera oheratu baino lehen, egongelara joan eta:

—*Gabon guztioi eta zuri, osaba Aingeru, eskerrik asko*—esan eta oheratu egin da.

Eta osabaren liburu polita irakurten hasi da, baina... laster jausi jakoz bere begi txepelak.



# MIXINA ETA TELEBISTEA

*D*omekea da eta Mixina logura barik jagiten da ohetik; izan ere, asteko egunik gogokoena dau domekea.

Mezea entzun eta gero, amari bazkaria gertatzen laguntzen deutso; patatei azala kendu, frutea garbitu...

Egia esan, etxe honetan danak laguntzen dabe zertan edo hartan.

Amama, adibidez, sagar-pastela egiten dabil, aita parrilan erretzeko okelea prestatzen...

Aititak eta ume txikiak mahaia ipini dabe. Lan hau egiten ez dabe denpora larregirik emon eta orain telebistea ikusten dihardue.

—*Marrazki bizidunak, aitita!*—esaten deutsie umeak aititari.



—*Bai zera! Antzinako pelikulak langorik ez dago gaur egun*—esan dau aititak eta pelikulea jartzen deutse.

Eta han dagoz danak adurra dariela, telebisteari begirik kendu barik pelikulea ikusten.

—*Eskuak garbitu eta bazkaltzera*—deiardar egin dau amak.

Bazkaria amaitu bezain laster, etxeko guztiak egongelara doaz. Besaulkian jezarriaz batera, aitita eta amama lo gelditu dira; handik denpora gitxira aita bera ere lokartu egin da. Ama egunkaria irakurten dabil.

Mixinak telebistea baxu-baxu jartzen dau, lo dagozanak ez esnatzeko.



Abereei buruzko dokumentala da une honetan telebistatik emoten dabilzana. Mixina zirkinik egin barik dago. Halango baten iragarkiak hasten dira.

—*Ama, begira iragarkiak zer dinoan. Xaboi hori gurea baino hobeagoa da?*—itauntzen deutso bere amari.

—*Tira, ume! Iragarkietan esaten dan guztia ez da egia eta!*

—*Orduan, nik gura dodan panpina ere ez da mogiduko?*—itauntzen dau umeak.

—*Ez, laztana, mogidu behar badau, zeuk mogidu beharko dozu*—esaten deutso amak bizkarra zutituazoz.

Iragarkiak amaitu dira eta amak telebistea amatatu egiten dau. Mixina liburu bat irakurten hasten da.

—*Mixina, domekea dan ezkerro, ez dogu apur baten jolastuko?*—esaten deutso Mixinari bere nebeak.

Eta neba-arrebakaz apur baten jolastu ondoren, Mixina parkera doa Pako eta Arantzagaz futbolean jokatzeko asmotan.

“*Gustatuko ete jakez osaba Aingeruren liburuak?*” itauntzen deutso bere buruari.


Parkera helduaz batera emoten deutse paketea.

—*Bai polita dala!*—dino Arantzak bere liburuari begiratu.

—*Ba nirea... ezin politagoa!*—esaten deutso Pakok poza ezkutatu ezinik.

—*Itzi daiguzan aulkian eta jolastu daigun futbolean*—dino Mixinak.

Ia-ia baloia apurtu arte jolastu ondoren, zuhaizpe baten jazarri eta barriketan hasi dira.



—*Abereei buruzko dokumentala ikusi dozue?*—dino Mixinak.



—*Nik ez, matematikako zereginak egiten ibili naz*—erantzuten deutso Pa-  
kok.

—*Ba nik bai*—esaten deutso Arantzak—, *eta gebien gustatu jatana Afrika-  
ko elefanteen tronpea izan da, beso magiko bat bezela mogitzen dalako.*

Eta joan aurretik danak batera dinoe:

*Eta kontuak kontu,  
bihar astelehena dan ezkerro,  
eskolara joango gara  
lo egin eta gero.*





# MIXINA JAI BATEN

"

*stelehena, jai ondoko eguna*", dino abestiak, baina Mixina eta bere lagunentzat gaur ere, jai eguna da. Tira, jaia dabe, bai, baina ez egun osoan, eskolatik urten eta gero baino .

Gorkak urteak egiten dauz eta Pako, Arantza eta Mixina askaltzera konbidatu dauz.

Arratsaldeko seiak dira eta Anttoni, Gorkaren ama, txokolatea banatzen has-teko prest dago. Beno, txokolatea eta gainetikoak ere agiri dira mahaian; urdaiazpikoa, patatak, gaztaia, ogia... pastelak. Edariak ere ugari eta mota guztietakoak, laranjadunak, limoidunak...

Mixina oso lagunzalea da eta gaur ere lagun barriak egin gurean dabil. Horregaitik dabil bata eta bestea agurtzen.


—*Begira, nire lagunak, Arantza eta Pako* —esaten deutso bere aurrez-aurre dagoan betaurrekodun mutiko bati. —

Mutikoa oso jatuna da eta Mixinari ez deutso jaramon handirik egiten; jaten jarraitzen dau.

Mixina bera ez da holangoa, jan egiten dau, baina beti ere neurriz.

—*Hango ba, han mahai-buruan dagoana, nor ete da?* —itauntzen deutso Mixinak Arantzari.

—*Ez nago ziur, baina Gorkaren lehengusua dala uste dot* —erantzuten deutso Arantzak.



“Zorionak zuri, zorionak beti”, abestia kantatuz baten bat dator kaletik.

Gorka zutitu eta aterantz doa. Beste guztiak jezarrita jarraitzen dabe.

—*Aita!*—esanez mosu bat emoten deutso aitari. Gero, bere lagunei begiratuz esaten deutse:

—*Begiratu, hau nire aita da eta Kepa dau izena.*

Mixina berehala zutuntzen da Gorkaren aita agurtzera.

—*Ederto, umeok, orain askaria jan eta jolastu egin beharko dozue, ezta?*—esaten dau Gorkaren aitak.

—*Bai, baina lehenengo, Gorkari opariak emongo deusaguz*—erantzuten deutso Arantzak.

Eta denpora galdu barik, opariak Gorkaren ondora ekarri eta Gorkari begiak itxi eragin deusiez.

—*Zabaldu begiak!*—deiadar egiten dau batek eta...


—*Aaaaaaaaauuuuuuuuufffff!*—oihu egiten dau Gorkak.

Hegaz balebil lez, arin-arin zabaltzen dauz Gorkak paketeak eta... liburuak, margoak... danetatik oparitu deusie.

—*Ez da izango!*—dino begiak zabal-zabal eginda—, *azterlarien pegar bat ez da ba!*

Egia esan, Gorkari beti gustatu izan jako azterlarien lana eta orain... edarrea behintzat badau.

Edarrea eskuan hartzerakoan idatzita dagoala konturatzen da. “Zorionak eta urte askotarako, horixe opa deusue Pako, Arantza eta Mixinak.” Gorkari begiak negar-malkoz beteten jakoz.



—*Lagunok, iluntzen hasi da eta etxera joan beharko dogu* —esaten deutso Mixinak Gorkaren emozioa baretu gurean.

—*Bai, egia da, gaur astelehena da eta etxeko lanak ere egin behar dira* —esaten dau Gorkaren amak.

Eta alkar agurtuaz, bakoitzak bere etxeko bidea hartzen dau.

Bidekurutzera arte Mixina, Pako eta Arantza batera doaz.

—*Larregi jan dot* —dino Pakok.

—*Bai, tripontzitxoa bazara ba zu...* —esaten deutso barrez Arantzak.


—*Zeuri ere, apur bat zaintzea ondo letorkizu* —dino Mixinak Arantzari.

Eta alkar agurtuz banandu egiten dira. Etxerako bidean Mixinak honako hau pentsatzen dau:


*Gaur ere lortu dogu,  
gure opariez Gorkari  
poza eroan deutsagu.*



*Mixinak, familiagaz, lagun artean eta geure inguruan diranakaz, bai etxean edo kalean jarraitu beharko geunkezan jarre-  
ra egokiak bultzatu gura dauz, ingurugiro atseginago baten  
bizitea lortzeko.*



- 1 Ipuin Unibertsalak
- 2 Zirkuko Itzalak
- 3 Gabonetako Ipuinak
- 4 Basoan
- 5 Bibliako Istorioak
- 6 Mixina



**Zorionak Bilduma**